

## ESKUMUTURREKOEN SALTZAILEA

Oihane Maritxalar Egileor

*Oiartzun*

*Duela 20 urte...*

—Etorri, laztana, etorri hona!

—Zer nahi duzu, ama?

—Gogoko al dituzu eskumuturrekoak?

—Bai! —erantzun zion segituan alabak.

—Etorri, orduan, eskumuturrekoak egiten erakutsiko dizut nik.

—Mila esker!

Eta besarkada estua elkarri eman ondoren, hantxe hasi ziren lanean, hari artean, eskumuturrekoak egiten. Hasieran zaila egin zitzaion ikastea, baina egunak joan egunak etorri, azkenean kolore eta forma guztiko eskumuturrekoak egiten zituen hamar urteko neskatila ilegorriak.

Neskatila hark Gorane izena zuen, eta udaberriko zuhaitzen hostoak bezain berdeak zituen begiak. Bere ile gorriarekin bi txirikorda luze egiten zituen, *Pipi Kaltzaluzeren* antzera. Gorane abenturazale handia zen, eta amazuloa. Gehien gustatzen zitzaiona amarekin eskumuturrekoak egitea zen.

—Ama, eskumuturretakoak egingo al ditugu? Mesedez...

—Orain ez, maitea, eskumuturrekoen saltokira joan behar dut lan egitera... Baina ideia on bat daukat: etorri nirekin.

—Bai? Benetan?

—Bai, goazen, damutu baino lehenago niri.

—Aupa!

Eta horrela amarekin lanean hasi zen Gorane. Hasieran lotsatu egiten zen norbait gerturatu eta zerbait galdetzen zionean, eta amaren soinekoaren atzean ezkututzen zen lotsaren lotsaz. Baina egunak joan ahala, kalera atera eta oihuka hasi zen: “Etorri amaren eskumuturrekoen mahaira, etorri!”

Hala, amarekin batera, herrian zehar ibiltzen zen, eskumuturrekoak saltzen eta, bertako auzokoei egunak alaitzen eta eskumuturrak apaintzen.

Gau batean, ohean zegoela lo hartu ezinik, amari ipuin bat kontatzeko eskatu zion:

«Neguko gau ilun batean Saharako herri txiki batean, Malik izeneko neskatila batek amona maiteari gutun bat idatzi zion, beraren falta sumatzen zuelako. Ondoren, orria paperezko hegazkina bilakatu zuen eta logelako leihotik, zuen indar handienaz jaurti zuen hegazkina ilargirantz, amonak irakurte zezan.

Bat-batean ilargiak eta izarrek dir-dir berezi bat egin zuten. Amonak mezua irakurri zuen».

—Gustatu al zaizu istorioa, laztana? —esan zion goxo-goxo amak, baina alaba lo zegoen jada—. Ondo lo egin, laztana, ondo lo egin...

*Gaur...*

—206 gela? Non dago 206 gela? —galdezen zion behin eta berriro bere buruari.

—Barkatu, galdera bat: non dago 206 gela? —galdetu zion bidean topatu zuen erizain gazte bati.

—Hor aurrean ezkerretara jo eta hantxe dago; segituan ikusiko duzu gela.

—Mila esker!

Korrika batean iritsi zen erizainak esan zion lekura eta hantxe zeukan, aurrez aurre, 206 gela. Ez zuen inoiz pentsatu hain goiz iritsiko zenik momentu hura; atearen beste aldetik kexuak entzuten ziren.

Tok-tok!, atea jo zuen, beldurrak hartuta.

—Kaixo, ama, zer moduz zaude? —esan zion barruan zuen tristura gorde nahian.

—Ondo ez, baina medikuek diote horrela jarraitzen badut, badagoela ni sendatzeko aukera. Nik ez dut uste...

—Ama, ez esan horrelakorik, sendatu egingo zaituzte...

Ate-hotsa entzun zuten, erizainak iritsi ziren.

—Mesedez, gelatik ateratzeko eskatu behar dizugu, injekzioa jarrita lo har dezan.

—Ondo da, baina gero sar al naiteke?

—Bai, 10 minutu pasatu ondoren.

Atearen beste aldean itxarroteak sekulako mina ematen zion Goraneri, inurri txikitzat zuen bere burua hainbeste arazo handiren artean. Eta hori gutxi balitz, ama-alaben eskumuturrekoen saltokia ere ez zihoan batere ondo.

Atera ziren erizainak eta orduantxe, momentu horretan, jakin zuen amaiera zela, bere mundua behera zihoala.

—Barkatu! Injekzioa jarri eta handik bi minutu-  
ra joan da...

Lehen malkoa erori zitzaion, erizanak azken hitza esan zuen unean. Ahal zuen azkarren sartu zen logelara, hantxe zegoen ama, ohean etzanda, beti bezala, ametsetan egongo balitz bezala: “Ama, mesedez, ez joan, mesedez...”.

Momentuan negar batean hasi zen. Lasaitu zenerako erreparatu zuen, amaren eskuan gutun bat zegoela bere izenarekin: “Ilargian egongo naiz, laztana, ez zara bakarrik inoiz egongo.”

Ez zekien zer egin eta eskumuturrekoen saltokira joan zen, ezinean, eta han sartu zenean erori zen guztiz. Negar-malkoak masailetan behera zituela, dendatxoari, non hainbeste ordu elkarrekin egindakoak ziren, buelta bat eman zion; mahaitxoia ere hor zegoen... A zer momentu onak pasatu zituzten bertan, eskumuturrekoak egiten eta jendeari laguntzen! Baina hori guztia bukatua zen jada, joana zen.

Egun batzuk joan ziren, baina mina lehen eguneko bano handiagoa zen. Minutuan baino minutuan txikiagoa sentitzen zen, ezin zuen gehiago jasan. Gutun hura oroitzeak sentiarazten zuen pixka bat indartsuago, beti bere alboan egongo zela jakiteak asko laguntzen zion, baina bihotza apurka-apurka hausten ari zitzaion.

Hantxe, mahaiaren inguruan eseri eta ahal zuen bezala hartu zuen orri bat; idazteari ekin zion, minaren minez...

«Ama:

Ez dakit gutun hau iritsiko zaizun, baina bihotzaren samin guztia askatu nahi nuen hau idatziz, barruko tristura askatu, beldurrei aurre egin.

Ez dakit nola esan zeure falta dudala, egunak luze-egiak direla, baita gauak ere.

Ez dakit zeugan pentsatzean sortzen zaidan mina nola kendu. Zeure beharra dut, ez nuen sekula pentsatuko zeure laguntza, zeure maitasuna hain beharrezkoak nituela.

Gogoan al duzu ilargiaren istorioa? Nik ezin dut burutik kendu, zure gutuna irakurri nuenetik. Horregatik, gutun hau idazten ari naiz, istorioak dioen bezala, zeure falta sumatzen dudalako eta zuk mezua irakurtzea espero dudalako. Ilargiak eta izarrek dir-dir egitea.

Egunek aurrera egin arren, nire bihotz txikituan beti egongo da toki bat zuretzat. Badakit ilargi eta izarren artean egonagatik, neure alboan zaitudala. Itxarongo dut zu ikusteko, zu estu-estu besarkatzeko momentua.

Maite zaitut».

Goranek gutuna hegazkin bilakatu zuen eta logelako leihotik, zuen indar handienaz jaurti zuen hegazkina ilargirantz, amak irakur zezan.